



Terese Lujua - Zaloa Calvo
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Antoine de Saint-Exupéry	3
Sarrera	4
<i>Printze txikia</i>	
Kokapena	5
Edukia	
Gaia	5
Argumentua	6
Istoria	6
Pertsonaiak	7
Moldea	
Egituraketa	9
Baliabideak	9
Iritzia	11
Bibliografia eta webgrafia	11

Antoine de Saint-Exupéry

Antoine de Saint-Exupéry, Lyonen (Frantzia) jaio zen, 1900eko ekainaren 29an, eta Frantziako hegoaldean, 1944ko uztailaren 31n hil zen idazle eta hegazkinlari frantziarra izan zen.

Posta-hegazkintzan lan egin zuen, eta konpainia desberdin askotan ibili zen lanean.

Bigarren Mundu Gerran, New Yorkera ihes egin zuen, baina denbora gutxi pasa eta gero, bere bizilekura itzuli zen aliatuen eskuadroi batean hegan egiteko Mediterraneotik.

1944ko uztailaren 31n, bere hegazkina Mediterraneo itsasoan hondoratu zen eta bere bizitza amaitu zen.

1998an, arrantzale batek Antoine de Saint-Exupéryren hegazkina aurkitu eta egiaztatu zuen, eta urte batzuk geroago, 2003ko urrian, bere hegazkinaren hondakinak berriz aurkitu zituzten. Hala ere, oraindik ez dira ezagutzen Saint-Exupéryren istripuaren zergatiak; alemanek probokatua, hegazkinaren akats mekanikoa, pilotuak oxigenorik gabe egotea...

Eta 1975ean, 2578 asteroideari Saint-Exupéryren izena eman zioten beraren omenez.

Pilotua, berak bizitako esperientzietan oinarritu zen liburu gehienak idaztean, *Le Petit Prince* (*Printze txikia*) obran izan ezik, bere liburuetakoa garrantzitsuena izan baitzen.

Hauek dira bere obra guztiak:

- *Hegazkinlaria* (*L'aviateur*), 1926
- *Hegoaldeko posta* (*Courrier du Sud*), 1928
- *Gaueko hegaldia* (*Vol de Nuit*), 1931
- *Gizonen lurra* (*Terre des Hommes*), 1939
- *Guda pilotua* (*Pilote de Guerre*), 1942
- *Bahituarentzako posta* (*Letter to a Hostage*), 1944
- *Printze txikia* (*Le Petit Prince*), 1943
- *Gotorleku* (*Citadelle*), 1948
- *Gazteriaren letrak* (*Lettres de jeunesse*), 1953
- *Kuadernoak* (*Carnets*), 1953
- *Bere amarentzako gutunak* (*Lettres à sa mère*), 1955
- *Gudako idazkiak* (*Écrits de guerre*), 1982
- *Manon dantzaria* (*Manon, danseuse*), 2007
- *Gutun ezezagunak* (*Lettres à l'inconnue*), 2008



Sarrera

Antoine de Saint-Exupéryk idatzitako istorioa da, 1943an argitaratuta. New Yorkeko hotel batean zegoenean idatzi zuen eta Amerikako Estatu Batuetan argitaratu zen lehen aldiz.

Hasieran, umeentzako liburua dela dirudi, baina gaiak, bizitzaren zentzua, adiskidetasuna eta maitasuna dira.

Antoine de Saint-Exupéryk interpretatzen du bere burua irudikatzen Saharako basamortuan galduta, hegazkin-istripu bat sufritu eta gero. Orduan, printze txiki estralurtar bat agertzen da eta berarekin hitz egiten du.

Ipuinean idazleak egindako marrazkiak ere agertzen dira, hau da, bera ipuinaren marrazkigilea ere bada.

Liburu guztietan bezala, pertsonaiak agertzen dira, baina istorio honetan ez dira asko agertzen, objektuak edo sentimenduak dira nagusi. Idazleak pertsonaietan adierazi ditu bere sentimenduak eta materialak:

- Printze txikia
- Abiatzailea (Narratzailea)
- Kutxa
- Arrosa, loreak
- Baobasak
- Sumendiak
- Erregea
- Harroxkoa
- Edalea
- Negozio gizona
- Farolaria
- Geografoa
- Sugea
- Azeria
- Orratz zaina
- Saltzailea

Printze txikia

Kokapena

Istorio hau Saharako basamortuan gertatzen da, baina unibertsoan ere bai; zeren eta, Printze Txikiak abiatzaile bati kontatzen dizkio hark bizitako istoriotxoak eta horiek unibertsoan beste planeta batzuetan dute kokapena, protagonistak planeta batetik bestera bidaiatzen duelako.

Bidaian, pertsonaia asko ezagutzen ditu, esaterako: erregea, harrokoa, edalea, negozio gizona, farolaria, geografoa...etab.

Baina liburuan garrantzi guztia duten pertsonaiek Printze Txikia eta abiatzailea dira, Printze Txikiaren istorioa delako eta abiatzaileak berak kontatutakoa narratzen duelako.

Edukia

Gaia

Liburua, orokorrean, nahasia da, baina irakurri ahala, gaiak hauek dira: maitasuna, adiskidetasuna eta bizitzaren zentzua.

Aldi berean, zientzia fikziozko liburua da, gertakizunak gure munduan ezinezkoak direlako; baina abenturazkoa ere bada zeren eta Printze Txikiak bizi izan dituen abenturak kontatzen dituelako.

Argumentua

Lehenengo abiatzaile batek matxura bat izaten du bere hegazkinarekin eta Saharako basamortu erdian lurreratzen da.

Gero, Printze Txikia ezagutzen du eta hark berak basamortuan amaitzeko bizi izan dituen istoriotxoak kontatzen dizkio: planeta txikien bisita, sugearekin izandako elkarrizketa, azeriaren bizitza, etab.

Azkenean, bakoitza bere bizilekura bueltatzen da; abiatzaileak bere hegazkina konpontzen du eta bere etxera bueltatzen da eta Printze Txikia ere bere planetara.

Istorioa

Behin, abiatzaile batek matxura bat izan zuen bere hegazkinean zihoala eta Saharako basamortuan lurreratu zen; zerbait hondatu zitzaion bere hegazkineko motorrean.

Printze Txikia hurbildu zitzaion eta arkume bat marrazteko eskatu zion. Marrazten ez zekienez, kaxa bat egin zuen eta barruan arkumea zegoela esan zion.

Printze Txikia beste planeta batetik zetorren, B 612 asteroidetik hain zuzen ere eta abiatzaileak kontatu zion berari gertatutakoa. Berehala lagunak egin ziren.

Printze Txikiak bere planetari buruzko istoriotxoak kontatzen zizkion, (bakoitza planeta desberdin batean) eta abiatzaileak egunero zerbait ikasten zuen:

1. Errege batek enbaxadore izendatu zuena.
2. Harroxko batek, ikustaldi bat egin ziona.
3. Edale batek, edatearen lotsa zuena.
4. Negozio gizon batek, beti izarrak zenbatzen zituena (500 milioi baino gehiago guztira) aberatsa izateko asmoz.
5. Farolari bat, bere planetan egunak minutu bat irauten zuena eta 30 minutu hitz egin ondoren, hilabete bat pasatu zen.

6. Geografo bat, esploratzailea ez zena eta horregatik ez zekien non zeuden itsasoak, ibaiak, ozeanoak, hiriak, mendiak eta basamortuak.
7. Lurrean, 2.000 milioi pertsona zeuden (111 errege, 7.000 geografo, 900.000 negozio gizon, 7 milioi eta erdi mozkor, 311 milioika harro).

Printze Txikia Lur planetara jausi zenean, suge bati galdetu zion ea non zeuden eta hark esan zion Afrikan zegoen Saharako basamortuan zeudela.

Geroago, azeri batekin topo egin zuen. Azeriak esan zion bera oiloak ehizatzen zituela eta gizakiek bera ehizatzen zutela.

Azkenik, saltzaile batekin hizketan hasi zen. Honek, pilula berezi batzuk saltzen zituen; astean behin pilula bat jaten bazenuen, ez zinen egarri izango aste osoan.

Printze Txikiak bere istorioak kontatzen amaitu zuen eta biak oso egarri zeudenez, ur bila joan ziren.

Putzu bat aurkitu zuten eta oso nodo funtzionatzen zuen jada. Orduan, putzutik ura hartu eta Printze Txikia erori zen lekura joan ziren.

Azkenean, abiatzaileak bere hegazkina konpondu zuen eta biak haien biitokira bueltatu ziren.

Hortik aurrera, abiatzaileak gau guztietan izarretara begira zebilen eta beti zegoen izar bat berari irribarretxo bat ateratzen (Printze Txikia).

Pertsonaiak

- **Printze Txikia.** Protagonista da eta berak dioenez, B 612 asteroidetik dator.
- **Abiatzailea.** Narratzailea da eta hegazkin bat pilotatzen doala, matxura bat izaten du eta Saharako desertuan lurreratzen du.
- **Lorea.** Printze Txikiak lore hau zaintzen du, eta pena ematen dio berarengandik bereizten denean.

- **Erregea.** PrintzeTxikiak lehenengo planetan ezagutzen duen gizona da, aulki xume eta miresgarri batean eserita. Bera bere planetaren, gainerako planeten eta izarren erregea da.
- **Harroxkoa.** Bigarren planetan bizitako gizona da, kapelu xelebrea daramana. Berak esaten du, bere planetan bizi den gizonik ederrena, ongien jantzita zegoena, aberatsena eta burutsuena dela (Baina benetan, bere planetan bizi den pertsona bakarra da).
- **Edalea.** Hirugarren planetan dagoen mozkortia da eta edatearen lotsa du.
- **Negozio gizona.** Laugarren planetan dagoen gizona da. 500 milioi izar ditu eta beti dabil izar berdinak zenbatzen.
- **Farolaria.** Bosgarren planetan dagoen pertsona da. Bere planeta oso txikia da, eguna minutu bat irauten du eta planeta hain txikia denez, bera eta farola bakarrik sartzen dira.
- **Geografoa.** Seigarren planetan bizi den gizona da. Itsasoak, ibaiak, ozeanoak, hiriak, mendiak eta basamortuak zeintzuk diren daki, baina esploratzaile bat ez denez, ez daki zehazki non dauden.
- **Sugea.** Printze Txikiari esaten dio non dagoen, bere planetatik erortzean.
- **Arrosak.** Protagonistak Lurrera bidaiatzen duenean aurkitzen dituen landareak dira, eta ikustean, triste eta negarrez jartzen da berak arrosa bakarra bere planetan duela pentsatzen duelako.
- **Azeria.** Oiloak ehizatzen ditu, baina ehiztariek bera ehizatzen dute. Printze Txikiarekin joan nahi du bere planetara, baina ez du lortzen.
- **Orratz-zaina.** Bidaiariak milakako multzotan sailkatzen ditu.
- **Saltzailea.** Egardia kentzen duten pilula perfektionatuen saltzailea da, hau da, horietako pilula bat astean behin hartzen baduzu, ez zara egarri izango aste osoan.

Moldea

Egituraketa

Liburua oso ondo antolatuta dago. Azaleran izenburua (Printze Txikia), idazlearen izena (Antoine de Sain-Exupéry) eta argitaletxea (Salamandra) agertzen dira.

Lehenengo atalean, idazlearen informazio pixka bat dago, bere biografia jakiteko.

Gero, sarrera bat dago eta esaten du, ba, istorio hau umeen abenturetan oinarrituta dagoela, baina lexikoa gazteentzat edo nagusiagoentzat dela.

Istorioak 93 orrialde ditu, XVII kapitulutan banatuta eta kapitulu bakoitza 3 edo 4 orrialderekin. Eta ia kapitulu guztietan marrazkiak daude (gainera, idazleak egindakoak).

Baliabideak

Konparazioa. Bi elementuen arteko konparazioa egiten da.

“Printze Txikiari argitu nahi zion baoba-ak ez zirela zuhaixkak, elizak bezalako zuhaitz tantaiak baizik...”

Eliza eta zuhaitz tantaiak konparatzen ditu.

Pertsonifikazioa. Objektuez hitz egitean, gizakien ekintzak jartzean. Istoria abiatzaile batek kontaktzen du, gainera hiru pertsonetan.

Lehenengoz, bere bizitzari buruz hitz egiteko, edota bere burua aurkeztean, **1. pertsonan:**

“Sei urte nituela, behin batez irudi liluragarri bat ikusi nuen liburu batean...”

Gero, Printze Txikiari buruz hitz egitean, **3. pertsonan**:

“Ene , elizak proposamenak harritu antzean harrapatu zuen Printze Txikia...”

Eta, azkenik, irakurleei hitz egiterakoan, **2. pertsonan**:

“Printze Txikia maite duzuenontzat, niretzat bezala, unibertsoa ezin da berdin izan baldin eta, hor nonbait, batek daki non, ezagutzen ez dugun arkume batek arrosa bat jan badu edo ez...”

FIGURAK

Metafora. bi osagaien arteko antzekotasuna dago (errealitate bat beste baten izenarekin ordezkatzeko da).

“Arkumea sakelatik atera eta bere altxorrari begira-begira geratu zen”.

“Altxorra” hitza metafora bat da eta hori esaten duenean, arkumearen kutxataz ari da.

“Haziak ikusezinak dira, ordea, Lurraren sekretupean lo egoten dira, harik eta esnatzeko gogoia etortzen zaien arte”.

“Bizirik zeuden sumendiei kontu handiz kendu zien kedarra”.

Iritzia

Printze txikia abenturazko liburu polita da baina aldi berean, ezkutatuta hainbat gai interesgarri daude marrazki askoko liburu txiki batentzat.

Hasieran, liburua aukeratu genuen ezaguna iruditzen zitzaigulako eta laburra zirudielako, baina irakurri ahala, konplexua dela konturatu gara, baina gustuko izan dugu.

Gehienetan, arraro xamarra zela iruditu zaigu, batez ere lehenengo kapituluak irakurtzean, abiatzailearen lehen irudiak erakusten dituztenean; sugeak elefantea jaten duenean, edota *Printze Txikia* basamortuan agertzen denean, edo ardi bat irudikatzeke eskatzen dionean...

Zer harreman daukate ardi eta suge baten marrazkiak *printze txiki* eta abiatzaile batekin? Hori galdetu genion gure buruari, baina irakurtzen jarraitu ahala, konturatu gara liburuarekin zerikusirik ez dutela eta horrek harritu gaitu.

Abenturazko liburu bat dela konturatu gara, *Printze Txikiak* planeta batetik bestera bidaiatzen du hainbat pertsona edo animalia ezberdin ezagutuz, eta harritu gaitu ez genuelako espero hain liburu txiki eta nahasiak gai hori eduki izango zuela.

Istoria, oro har gustatu zaigu, ustekabekoa izan delako eta marrazki asko izan dituelako. Hori irakurtzean, galtzeko eta ideia bakoitza bere lekuan egoteko lagundu digu, esan dugun bezala, liburua nahasia delako.

Bibliografia

“*Printze Txikia*” liburutik atera dugu informazio guztia eta jatorrizko izenburua “*Le Petite Prince*” da (frantsesez), 1946. urtean (Éditions Gallimard, Paris) argitaratuta.

Webgrafia

[http://es.wikipedia.org/wiki/El_principito#Bibliograf.C3.ADa Antoine de Saint-Exupéry](http://es.wikipedia.org/wiki/El_principito#Bibliograf.C3.ADa_Antoine_de_Saint-Exupéry) (Idazlearen biografia)